

Topalekua

45zk. 2008ko martxoa

marzo 2008 - n.º 45

1. eta 2. or.: *Gizarte Kontseiluak UPV/EHU-aren gizarte sarea sortzeko ideien lehiaketaren sariak eman zituen.*

3. or.: *Gizarte Kontseiluak hazten eta gizartearen beharrei egokitzen doan UPV/EHU-aren berezko tituluen eskaintza aztertu du.*

4. or.: *Osoko Bilkurak 2009-2010 Plan Estrategikoaren proiektuak aztertu zituen.*

19 taldek eman zuten izena, 14 proiektu aurkeztu ziren

GIZARTE KONTSEILUAK UPV/EHU-AREN GIZARTE SAREA SORTZEKO IDEIEN LEHIAKETAREN SARIAK EMAN ZITUEN

UPV/EHU-ren Gizarte Kontseiluak ikasleei, graduatuei eta Unibertsitateari atxikitako langileei zuzendutako Gizarte Sarea sortzeko Ideien Lehiaketaren sariak eman zituen iragan otsailaren 28an. Sarien helburuak aipaturiko taldeen arteko komunikazioa sustatzea, haien gaitasunak hobetzea, lanean hasteko pausoan zuzentzea, etengabeko hezkuntza sustatzea eta ezagutzaren arloen profesionalen arteko komunikazioa hobetzea dira.

12.000 euroko, 6.000 euroko eta 3.000 euroko sari bana eta 1.000 euroko hiru akzesita zituen ideien lehiaketa horretara 19 talde aurkeztu diren, gizarte sareko 14 proiektu aurkeztu zituztenak.



Talde irabazlearen bozeramaileak aurkezpenean bere proiektua azaldu zuen.

19 taldek eman zuten izena, 14 proiektu aurkeztu ziren

GIZARTE KONTSEILUAK UPV/EHU-AREN GIZARTE SAREA SORTZEKO IDEIEN LEHIAKETAREN SARIAK EMAN ZITUEN

Lehenengo saria “PLE bitartez (Personal Learning Environments) bitartezko Gizarte Sareen sortzea eta garapena” proiektuak eraman zuen. Taldearen partaideak: UPV/EHU-ko irakasleak diren Javier Portillo (Ingeniaritza), Manuel Benito (Gizarte Zientziak) eta Jesús Romo (Ingeniaritza); Ingeniaritzako Oskar Casquero eta Beatriz Tejedor ikasleak eta Kazetaritzan graduatutako Ramón Ovelar.

Proposamena, PLE-etan oinarritutakoa, unibertsitateko edozeinek erabiltzen dituen aplikazioek (hasierako orria, kontaktuen kudeaketa, e-maila, blogak, wikiak, testu editoreak, web pertsonala, etab.) gutxieneko egitura komuna edukitzea da, Unibertsitatearen zerbitzarietara informazioa esportatzeko eta haietatik informazioa inportatzeko gai izan daitekeelarik, taldeko kide guztien gizarte sare denak modu zentralizatu eta pertsonalizatuan sortu eta kudeatu ahal izateko.

Bigarren saria, 6.000 eurokoa, “UPV/EHU-ko Gizarte Sarea” proiektuak eraman zuen. Partaideak: Santiago de Pablo Katedraduna eta Bárbara Echeverría eta Fidel Liberal irakasleak; Nagore García eta Jon Ortiz lizentziatuak eta Marta Rosete Maisutza ikaslea.

Proiektuaren helburua hainbat edukiko bloga sortzea zen, ez pertsonala, baizik eta instituzionala, irakasleek modu boluntarioan ekarritakoarekin, eta gaitan zein ataletan sailkatutakoak, Gizarte Sareko kideei modu pertsonalizatuan bidaliko zitzaizena buletin elektroniko gisa. Unibertsitateko graduatuak antzinako irakasleekin harremanetan jarraitu ahal izatea da haren helburua, horrela, unibertsitatearen komunitate handi horretan jarraitu ahal izango dute (birtualean, kasu honetan).

Hirugarren saria Josu Aramberrik, José Miguel Correak, Margarita Leónnek, José Manuel Pérezek, Estibaliz Jiménez de Aberasturik eta Luis Pedro Gutiérrezek aurkeztutako proiektuak eraman zuen. Proposatu zutena, doako softwaren erremintetan oinarritutako sarea sortzea da, Mahara (etengabeko hezkuntzan zentratutako gizarte sarea edukitzeko egun dagoen sistema aurreratuena omen dena) eta Moodle esaterako (hautematen diren hezkuntza beharren erantzun konplexu eta artikulatuari erantzuna emateko ikastaroen kudeatzaile gisa), modulu bakar gisa edo elkarrekin komunikaturiko hainbat modulu gisa funtzionatuko luketenak. Sareak besteekin elkartzeko ahalmena izango zuen espazio malgu gisa egituratuko litzateke eta UPV/EHU-aren berariazko erreminten erabilerarekin osa zezakeen. Bertaratutako heziketaren lagungarri izango litzateke eta haren lagungarri birtuala, etengabeko heziketarekin, enpresekin, etab. lotura estuagoak dituzten espazioak ireki ere zitzakeelarik.

Nahi duenak, Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluaren web orrian irakur ditzake hiru proiektu irabazleak eta akzesita irabazi duten beste hirurak ere: <http://gizartekontseilua.com/>, “Novedades: Proyectos ganadores del Concurso de Ideas para la creación de una red social” atalean.



2. saria



3. saria



Akzesit



Akzesit



Akzesit

GIZARTE KONTSEILUAK HAZTEN ETA GIZARTEAREN BEHARREI EGOKITZEN DOAN UPV/EHU-AREN BEREZKO TITULUEN ESKAINTZA AZTERTU DU

UPV/EHU-ko titulu ez ofizialen eskaintza areagotu egin da eta jadanik 2006eko ekainean Unibertsitateko Gizarte Kontseiluaren eskaera jarraituz egin zen Gizarte Beharren Ikerketan hauteman ziren hezkuntza aukeren 12 arloetatik 6 barneratu ditu. Hori da, hain zuzen ere, iragan martxoak 5ean Gizarte Kontseiluko Bilkuran ikertu zen titulazio horien gaur egungo eskaintzari buruzko txostenaren ondorio nagusienetarikoa.

Ikerketak agerian utzi du 2006eko ekainean hauteman ziren hezkuntza beharren 28 arlo handietatik egungo eskaintzak 20 hartzen dituela, beraz, UPV/EHU-ak orduan graduondoko ikasketarik eskaintzen ez zituen 12 arloetako 6ra hedatu da. Gizarte-zientzien arloa da lehenengo ikerketa hori egin zenetik haren estaldura hobetu ez den bakarra.

“Euskal Autonomia Erkidegoko behar sozio-ekonomikoen, laboralen eta kulturalen arabera UPV/EHU-aren berariazko titulu ez ofizialen ikerketa”-ren eta Kontseiluaren bilkurak aztertu zuen horren jarraipenaren helburua gizartearen eskaerei eta beharrei hobeto erantzuten dieten arlo interesgarriak identifikatzea eta berariazko titulu berriak inplementatzea da.

Ikerketa horretan, hezkuntza aukerako 28 arlo identifikatu ziren (5 Zientzia esperimentaletan, 7 Irakaskuntza Teknikoetan, 5 Osasun Zientzietan, 6 Gizarte Zientzietan eta Juridikoetan eta 4 Humanitateetan), horietatik, gaur egun, zortzi (2 Zientzia esperimentaletan, 2 Irakaskuntza Teknikoetan, 2 Osasun Zientzietan eta Juridikoetan eta 2 Humanitateetan) bakarrik gelditzen direlarik estali gabe. Estali gabeko aukera arloak ondorengoak dira: Energia garbiak eta mikroenergiak; Genetika; Garraioa, logistika eta mugikortasuna; Epidemiologia eta bioestatistika; Osasun ezagutzaren kudeaketa; Informazioko teknika berriak eta zuzenbidea; Kultura ondarea eta eduki kulturalak.

Txostenak UPV/EHU-ren graduondoko ikasketen eskaintza bere osotasunean aztertzea aholkatzen du haiek ikerketan jarri ziren helburuei egokitzeko: eskaintza talde berriei irekitzea (jadanik lanean dauden pertsonak, etengabeko heziketa, etab.), malgutasun irizpideak barneratzea talde horien ezaugarriei egokitzeko eta ezagutzak lanean aplikatu ahal izateko zuzendutako ikuspuntu berriak barneratzea.

EZAGUPEN LEKUAK	AUKERA LEKUAK		
	IDENTIFIKATUTAKO GUZTIRA 2006	ESKAINZARIK GABE 2005-2006	ESKAINZARIK GABE 2007-2008
ZIENTZIA ESPERIMENTALA	5	3	2
IRAKASKUNTZA TEKNIKOAK	7	3	1
OSASUN ZIENTZIAK	5	3	2
GIZARTEKO ETA LEGEZKO ZIENTZIAK	6	2	1
GIZA ZIENTZIAK	4	1	2
GUZTIRA	28	12	8

OSOKO BILKURAK 2009-2010 PLAN ESTRATEGIKOAREN PROIEKTUAK AZTERTU ZITUEN

Gizarte Kontseiluaren Plan Estrategikoa

Bilkurak Gizarte Kontseiluaren Plan Estrategikokoaren segimenduari txostena ere aztertu zuen eta, 2007an hasi eta bukatutako proiektuak aztertu eta gero (UPV/EHU-ko Ikerkuntza Produktu eta Zerbitzuen Katalogoa, Unibertsitateko Jardueren Urtekari Estatistikoa, Tituludunen Gaitasunen inguruko Ikerketa, Unibertsitate Enpleguaren Eskaintza Behatokia eta Gizarte Sarea sortzeko ideien Lehiaketa), 2009 eta 2010 urteetarako proiektuak identifikatzen aritu zen.

Bilkuran eztabaidatu ziren ekintzak, Gizarte Kontseiluaren Unibertsitateen Planaren eta UPV/EHU-aren Plan Estrategikokoaren barruan dagoen eta onetsi berri dena, 2007-2010 Plan Estrategikokoaren esparruan garatu beharrekoa, Kontseiluaren Planak aurreikusten zituen ardatz estrategikoekin bat datoz (unibertsitatea kudeatzen lagundu, Unibertsitatean gizartearen ahotsa bilakatu, unibertsitatearen baliabideak bistaratzen eta jakitera ematen lagundu eta Kontseiluaren kudeaketa sendotu UPV/EHU-ra hurbilaziz), eta ondorengoak dira:

GIZARTE KONTSEILUKO PLAN ESTRATEGIKOAN AURREIKUSITAKO EKINTZAK

UPV/EHU-ren antzeko ezaugarriak dituzten unibertsitate-ereduak identifikatzea eta aztertzea. Sistema, campusa, zentroak... kalitateari eta kudeaketa sistemari dagozkion unibertsitatearen lerro estrategikoak hobetzeko helburuarekin.

Unibertsitateko Zerbitzuak modernizatzeko azterketa eta diseinua egiten laguntzea.

Informazioko sistemen garapenean laguntzea ikasleen eta Unibertsitateak aurrera joateko beharrezkoak diren adierazleen aurrerapenak ebaluatzeko.

Gizarteak berrikuntzaren, ikerkuntzaren, gaitasunen, ezagutzen eta heziketaren inguruan bizi osoan zehar dituen beharrak identifikatzea.

Ikasleek enpresan egiten dituzten praktikak hobetzeko baldintzak identifikatzea.

Beste titulazioetako gaitasunak definitzea eta definitutakoen inplementazioa bultzatzea.

Unibertsitatearen zerbitzuen eta produktuen bereizmena sustatzea.

Sortutako ezagutzak (ikerkuntza) transferitzeko prozesua sortzea eta ikerlariak eta haien jarduerak komunikabideetan gehiago azaltzeko lan egitea.

Unibertsitatearen funtzio soziala jakinaraztea eta Euskal gizartearen garapen sozio-ekonomikoak hark duen garapenean laguntzea.

Unibertsitateak Gizarteari kontuak ematen laguntzea.

Unibertsitatearen jardueren profil kualitatiboa ematen duten neur daitezkeen adierazleak identifikatzea eta aldika informazio inpartziala eta objektiboa jakitera ematea.

Barne-komunikazioa sustatzea.

“Euskal Autonomia Erkidegoko behar sozioekonomikoen, laboralen eta kulturalen arabera UPV/EHU-aren berariazko titulu ez ofizialen azterketa” eta Gizarte

Kontseiluaren Plan Estrategikoa Kontseiluaren web orrian irakur daitezke: <http://gizartekontseilua.com>